

# Nafarkaria

• ostirala • 1998ko urtarrilaren 16a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Iruñea** • Zinema euskaraz ikusteko aukera.

**Jose Miguel Lana** • Erriberako lurrak lortzeko gatazkak mintzagai.



• LUIS AZANZA

## Sagardotegien ibilbidea martxan

San Sebastian bezperara itxaron gabe, gaur eta asteburuan zabalduko dute Nafarroako sagardotegiek Txotx edo sagardotegi garaia. Herrialdea ardo lurra bada ere, sagardoa gero eta gehiago errotzen ari da.



# Uitzi • Orixenea: urtebetez euskararen aldeko lanean

Aterpeak zerbitzu ugari eskeintzen ditu, Orixenearen ikastetxea izandakoan.

**Duela urtebete zabaldu zenetik, jende ugari izan da Orixenean. Batzuk, euskara maila hobetzeko asmotan hurbiltzen dira, eta beste batzuk, berriz, inguruko natura zoragarriaz gozatu nahian.**

**G**ARAI BATEAN NIKOLAS ORMAETxea Orixenearen bizitoki izan zen aterpea. Serora batzuen esku zegoen ikastetxean eman zituen idazle ezagunak haur eta gazte urteak, eta horregatik du etxeak Orixenea izena.

Garai onak ziren haiek ikastetxearentzat, baina zailak ere ezagutu zituen Uitzin erdi-erdian dagoen honek. Orduan, bazen Cadizen uitziar merkataria ospetsu bat: Jose Mariano de Iriarte Osanbela. Honek (dirua soberan zuen nonbait) fundazio bat sortu zuen, herriko eskola mantentzeko xedearekin. Baina Uitzin aspaldidanik ez dago eskola bat betetzeko adina haurrik. Horregatik, zenbait urtetan eskola hutsik egon da.

Duela bi urte, Cederna Garalur elkarteak, Europako zenbait dirulaguntza bitarteko, etxea berri eta egokitu egin zuen.



Orixenea etxea duela bi urte berri zuten, eta ordutik zerbitzu ugari eskaini izan ditu. • LUIS AZANZA

Horrela, bide batez, bi helburu lortzen zituen: herriko ondare historiko-arkitektoniko eta kulturala gordetzea, eta lanpostu berriak sortuko zituen jarduera ekonomikoa abiatzea. Laz, urte hasieran, lehiaketa publikora deitu zen zentro horren kudeaketa nork hartu erabakitzeko. Azkenean, aurkeztutako enprean, Bizkaiko Haizelan kooperatiba mugatua izan zen aukeratua.

Duela urtebetez hasi ziren Haizelanekoak lanean Orixenean. Natur Heziketarako Zentro bat zen orduan, eta bertara eskoletako haurrak joaten ziren, inguru-

giroari buruzko berriak ezagutzera. Baina ikastetxe honen erabilera aldatu egin zen hasi eta berehala. Nafarroako Gobernuak barnetegiak antolatu nahi zituen, eskolako haurrak euskaraz aritu ahal izateko. Herrialdean ez zegoen besterik, eta Orixenea horretarako leku egokia izan zitekeela pentsatu zuten.

Lehenengo urtebetetzeak balantzea egiteko aukera aipatzea eskaini du. «Balantzea ezin hobea da. Guztira mila pertsona inguru etorri dira 1997an. Kontuan izan behar da Nafarroa guztian ez dagoela horrelakorik. EAEn bai, bai-

na Nafarroan ez», azimarratu dute Aizelaneek.

Hirurogeita lau lagunentzako lekua bada barnetegian. Logezez gain, dena den, badira ikasgelak, liburutegia, ludoteka, jantokia eta beste zerbitzu ugari ere. Derrigorrezko Lehenengo eta Bigarren Heziketan diren ikasleek (hau da, sei eta hamasei urte bitartekoek) har dezakete parte barnetegian, zortzi eta ha-

mahiru bitartekoek lehentasuna izango badute ere. Orixenean egon ahal izateko baimena ikastetxeak eskatu behar dio Gobernuko Euskara Zerbitzuari. Ume bakoitzak lau mila pezeta baino ez ditu ordaindu behar, gainontzekoa Nafar Gobernuaren kontu baitoa. Diru horren truke, igandetik ostiralera bitartean euskaraz aritzeko aukera dute. Asteburuetan, berriz, aterpe bihurtzen da Orixenea. Mendizaleak eta gazte koadrilak dira gehien hurbiltzen direnak.

Orixenean, ikasturtearekin batera amaituko zaie kontratua Haizelanekoari. Hortik aurrera zer gertatuko den, inork ez daki.

→ Urko Aristi

## Bera

Hitzaldi tailerra neska-mutil gazteen gurasoentzat

SEME-ALABAK ARRATSEAN ATERATZEN hasten direnean, zer? izenburuarekin hitzaldi tailerra egingen da gaur arratsaldeko zazpitan Gure Txokoa elkartearen, Kaxerna Aisialdi Taldeak antolatuta. Gurasoek izaten dituzten kezkek, galderak, beldurrak... aztertzen eta erantzunak ematen saiatuko da Josune Mayor, Gipuzkoako Urtxintxa eskolako koordinatzaile, hezitzaile eta soziologoa.

Gurasoek gazteei noiz utzi behar dieten arratsean ateratzen, zer ordu arte eman behar zaien baimena, edatearen inguruan dauzkan zalantzak eta prebentzioa landuko ditu, bestek beste, Mayorrek, ikuspegi kritiko eta hezitzaile bategatik. Anitzetan horrelako galderei nola erantzun ez dute jakiten gurasoek, eta hori da hitzaldi tailerraren asmoa. Debekuan oinarritu gabe, egon daitezkeen alternatibak aurkeztuko ditu Mayorrek. Halaber, gazteen jokabidearen funtsa zein den aztertuko du, eta familiarren lana zein den landuko du.

Mayorren arabera, gazteek helduak hartzen dituzte eredu, eta horregatik ez da hain alarmista izan behar.

Kaxerna taldeak guraso eskola jarri nahi du abian, aisialdi taldean dabilzan neska-mutilen gurasoek izan ditzaketan arazoei erantzun egokia emateko. Aurrerantzean, bada, gisa bereko hitzaldiak antolatuko ditu Kaxernak.

→ Jon Abril

## muga enea

MIKEL REPARAZ



**P**arranda zen, ez talde suizidioa. Alarma eta ezkil guztiak astindu eta gero ohartu ziren hartaz agintariak, «ekintza» galeraztera zihoazen poliziak. Ertamerikan gertatu zen hori, indiar festa batean. Kanarietan, berriz, euren buruaz beste egin behar ei zuten balizko sektakideek ere parrandan direla diote, elkarrekin afaldu baino ez zutela egin behar, besterik ez. Hala ere, egunkariak lehen orrietan eman dute aferaren berri: plater hegalar baten zain ziren, eta munduaren akabera ostegun arratsaldeko zortzietan zetorrela eta, euren buruaz beste egin behar zuten 32 turista alemanek. Giriaren irudi esperpentikoaren are isla

## Ardi suizidak?

esperpentikoagoa da hori: Teidera zihoazen, arsaldo ibilaldian, martzianoak ikusi eta herioaren bila.

Garai batean, *-transicioneaz guibel-*, legez kanpoko bilera omen zen hiru pertsona baino gehiago mahai baten inguruan biltzea. Hala azaldu didate iturri akreditatuak. Bilera klandestinoek paranoia berpiztu dute atzera, sekten uluaren beldur oraingoan. Hala ere, «suntsitzaile» deituriko sekta horiek «autosuntsitzaile» diren artean, gaitzerdi. Izan ere, sektak gusto guztietakoak baitaude. Manifestazioak, kontzentrazioak, mezak, afariak, familia bilerak, futbol partiduak, matraka eta limiteak, ileapaindegiak... Edonon aurkitzen

ahal da lagunartean buruaz beste egiteko aukera ona. Eta inor ez da horrekin larritzen.

Baina ez dezagun amets antzurik egin. Aita Santuak suizidio masiboa goraituko balu ere, zeinek jarraituko lioke deialdiari? Gutxietsita dago sektakidearen buruargitasuna, arsaldo garunbagearen garuna. Talde suntsitzaileen ezaugarria omen da lider indartsu baten presentzia -Tenerifeko Heide hori Dalai Lamaren pareko jarri dute komunikabideek. Iruñinguruan urriak ez diren buruzagi erlijio-uniibertsitariak haien menpekoen heriotza eskatuko balute, jai. Izan ere, dirua dagoen lekuan, intsumiso gutxi eta desertore ugari. Parrandan ziren, ez buruaz bestean. Sinetsi, parrandan ziren. Parrandan.

## Zangoza

Nafarroa Oinez-en  
aurkezpena  
festa txikietan

GAUR HASIKO DIRA ZANGOZAN San Sebastianen omenezko neguko jaiak. Hitzordua arratsaldeko zortzietan izanen da udaletxe atzeko balkoian, non txaranga berri bateko kideek festei hasiera emanen dieten ohiko suzuria botaz. Aurtengo jai batzordeak egitarau mamitsu prestatu du datozen bost egunetarako. Jai giroa aprobetxatuz, etzi goizean, hamaiketatik aitzina, 1998ko Nafarroa Oinez aurkeztuko dute. Jakina denez, aurtengo Nafarroa Oinez Zangozan eginen da urriaren 18an, *Ametza eraikiz* leloarekin. Igandeko aurkezpenean, Rincon del Carmen ikastolako ordezkariak jai horren arrazoien eta helburuen berri emanen diete zangozarrei. Aurkezpenaren ondotik akodeoilariak, trikitilariak, dantzariak eta txistulariak herriko kaleetan barna ibiliko dira.

Bihar, berriz, dianak izanen dira goizean goiz, eta eguerditik aurrera Erraldioen eta Kilikien konpartsa abiatuko da hiriko kaleetatik. Julian Gaiarre jota eskolakoek kontzertua eskainiko dute 18:00etan, eta ordubete geroago Ablitasko dantza taldea arkupean ariko da. Herri afaria ez da faltako, ezta *Bajadica del Prau* delakoa ere: ohitura denez, gauerdian (00:30etan) Prau plazatik abiatu eta arkupeetarako ibilbidea eginen da, udal bandaren musikak lagundurik dantzatzuz. Ondoren dantzaldia izanen du gu ordu txikiak arte.

→ Jone Usoz

## Iruñea •

## Zinema euskaraz

Euskaraz bikoiztutako sei pelikula ikusteko aukera eskaintzen du Karrikiri elkarteak

A Karrikiri euskaldunen elkartearen eta Udalaren elkarlanari esker, gaurtik aurrera euskaraz bikoiztutako pelikulak eskainiko dira Golem zinematokian. Ekimenak heldu den apirilaren 3a arte iraunen du, eta ostiraleroko 20:00etan film bat euskaraz ikusteko aukera izanen da.

Oraindik aisialdiaz euskaraz gozatzeko aukerak urriak dira. Zineman huts hori are nabarmenagoa da. Areto komertzialetan zinema euskaraz topatzea ia ezinezkoa da, eta gabezia hori bete nahi izan du Karrikiri Iruñeko euskaldunen elkarteak euskaraz antolatutako zinemaldiarekin. Horretarako euskarara bikoiztutako pelikulak biltzen dituen zinemaldia prestatu du. Guztira sei pelikula izanen dira: *Alargunen gailurra*, *Tasio*, *Robin Hood*, *Wallace & Gromit*, *Urte ilunak* eta *Marius eta Jeanette*. Emanaldiak gaur hasiko dira, eta apirilaren 3a arte iraunen dute. Ostiraleroko arratsaldeko 20:00etan film bat pantaillaratu dute hiriburuko Golem zinematokietan. Gaur *Alargunen gailurra* emanen dute. Eskaintzak, hala ere, hiru film labur ere bildu ditu:  *Casting*, *Biktorren erreinua* eta *Koldo Almanoz* zinemagile euskaldunak zuzendutako *Razielen itzulera*. Sarrera 450 pezeta kostatuko da.



Karrikiri antolatuta, *Tasio* eta euskarara bikoiztutako beste bost filme ikusi ahal izango dira gaurtik aurrera.

● EUSKAL ZINEMA

Dena den, pelikula guztiak ikusteko asmoa duenak 2.000 pezeta bonoa eskura dezake (80 libera), Karrikiri Xabier 2 bis kalean duen egoitzan edo Golem zinematokian bertan.

Euskara gizarteari  
uztartuz

Euskara gizarteke beste esparru batean sartu nahirik ohiko areto komertzialetara egokitu dute proposamena, eta ez, normalean egiten den moduan, emanaldi bereziren batera. Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, publiko zabalarentzat eskaini nahi dituzte pelikulak. Nolanahi ere, zinemaldia presta-

tzeko bidean izan dituzte zailtasunak. Buruhauste handienak pelikulak aukeratzeko izan dituzte. Gaur egun helduentzako pelikula gutxi bikoizten direnez, aukeratzeko pelikula gutxi daude.

Bestalde, Karrikiriko partaideen iritziz, Iruñean martxan jarri den ekimen bera Euskal Herriko beste hiri batzuetara zabal daiteke. Horretarako beharrezkoa litzateke dauden euskara elkarteekin aritzea. «Bide hori lortuz gero, emanaldiak merkeagoak lirateke eta eskaintza zabaltzeko aukerak handiagoak» azpimarratu dute.

→ I. Arrizurieta

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Euskara eta Karlos Santamaria gogoan

Seaskak antolatuta hilaren 3an Baionan ikastolen alde egin manifestazioaren berri jaso du Herria astekariko azken zenbakia, *Euskararentzat hitzemanak obra* izenburupean. «*Euskararentzat hitzemanak obra*, hori da oihukatu Baionako karriketan. Arrakasta ederra ukan du denen buru Seaskak eta Euskal Herri barne hortako ikastolek Baionan muntatu manifestaldiak. Jendea etorri da burrusan, gizon eta emazte, Ipar Euskal Herriko eskualde guzietatik. Eta zer erran da hitzaldietan? Zer oihukatu da ibilaldi denbora guzian? Bi hitzez erraiteko, hauxe,

idazki handi batean ere zabal zabala ezarria zena: *Euskararentzat hitzemanak obra!*. Seaskaren arrangura handia hori da, garapen-kontseiluan akulatu lanaren ondotik, bide bat idekia zelarik barnekalde hortan ere ikastolen geroa hobeki segurtatua izateko gisan, deusik ez dela ardietsi Parisen egin denean CIADT delakoaren bilkura! Segur, bilkura horrek zer bait onik ere ekarri dauku bainan ez ikastolen aldeko sail premiatsu hortan... Hots, hitzemanak zena ez dela ardietsi eta hori ez dela onesten ahal, hori da erran eta errepikatutako aratsalde guzian».

Herria aldizkari azkenak, bestalde, abenduaren 30ean zendu Karlos Santamaria ekarri du gogora: «Euskal Herriko seme handienetarik izan da eta denbora berean argituenetarik, intelektual eta zientifiko haundia, maila horetaratu buruz lan haundiak egin ditu bai irakaslegoan eta bai Eusko Jaurlaritzan kontseilari ereman dituen urteetan. Euskal Unibertsitate sortzaile, EGUNKARIA kasetaren ardiesteko militante eta beti langile, lehenagotik hezkuntzan eta ikastetxeetako irakaskuntzan prezarazia zuen bere burua».

## Donesaturdiko

oilarra  
lumutzen  
Juan Kruz Lakasta

## Cristina

Cristinak 43 urte ditu, Redin kalean bizi da, eta Iruñeko Udaletxean egiten du lan, bulegari. Abenduaren hasierako egun goibel batean, Orbela tabernan eguerdiroko hamaiketako hartzen ari zela, lankide bati entzun zion lan-orduetan euskara ikasten ari zela. Kruasaren azken mokadua ezarrian behera laguntzeko kafesnari azken zurrupada ematen ziola, Cristinak erabaki zuen Eguberrien ostean euskara ikasten hasiko zela. Ordenadorearen aitzinean lan-ordu guztiak berdinak ziren, eta iruditu zitzaion lan-egunero bi lan-ordu euskara ikasten igarotzeak dexente alaituko zuela egun hartako eguraldia bezain goibel ageri zen haren lan-urte berria.

Hamaiketako urdaileratuta udaletxera itzuli zelarik, izena eman zuen euskara ikasteko. Urtarrilaren zazpitik aurrera, AEK-ko Iruñezar euskaltegian ikasiko zuen. Haatik, eguerdian, etxean, Telebistako berri emankizunetan entzun zuen AEK-ko euskaltegiaren euskara ez ezik bahiketarako egiten ere irakasten zutela, joko arau demokratikoak ez zituztela errespetatzen, alegia. Cristina joko arau demokratikoen aldekoa da, eta euskara ikasteko ideia zokoratzearekin egon zen. Azkenean, erabaki zuen euskaltegiaren hastea, eta deus arrarorik sumatzen bazuen, uztea. Finean, bi lan-ordu bi lan-ordu dira.

Horrenbestez, urtarrilaren zazpian, goizeko 8:00etan, Cristina euskaltegiko gela batean zegoen. Aurkezpenetarako, jolasa egin zuten pilota batekin. Halako batean, irakasleak «Nor da hau?» galdetu zion Cristinari, ikasle gaztetxo bat seinatuz. Cristinak ez zuen gogoratzen gaztetxoaren izena. Horrenbestez, prenda jarri zioten. Ikasle guztien artean adostu zuten Garcia tabernara jaitsi behar zuela, eta tortilla pintxo bat musu-truk emateko eskatu behar zuela. Cristina haserre irten zen gelatik, eta ez zen itzuli. Argi zegoen, euskara ez ezik, zerga iraultzailea kobratzen ere irakasten ari zitzaizkiola. *El Pais*-ekoekin hitz egin du, eta igandeko alean orrialde beteko erreportaiak plazaratuko dute, joko arau demokratikoen aurkako beste eraso onartezin honi buruz. ●


# Txotx ardoaren lurrean

Asteburuan zabalduko dituzte ateak Nafarroako sagardotegiek

**Ilbeltzaren 19a, San Sebastian bezpera, izaten da sagardotegi sasoi edo txotxeko garaia hasteko eguna. Nolanahi ere, Nafarroako sagardotegiek asteburu honetara aurreratu dute irekiera ekitaldia.**

produkzioa arautzeko ahaleginean aitzindari izan dira. Sagardozealek izanik, elkarlanean lortu dute sagardoaren produkzioaren pauso guztiak kontrolatzea. Herrialdeko sagardotegi gehienek sagardoa Gipuzkoatik ekartzen badute ere, Baztango bikotea hasiera-hasieratik Nafarroan egitera ausartu da. Elizetxek eta Garciak sagarrondoak landatu zituzten duela zazpi urte, sagardotegi ondoan dituzten lursailetan, eta orain uzta ematen hasi dira. Hiru hektarea dituzte, eta aurtengoa ekoiztu dituzten 35.000 litroetatik laurdenak beraien eta Baztan-Bidasoako beste sagargile batzuen uztakoak dira. «Sagardoa egiterakoan hemen produktatutakoa da erabiltzen dugun lehena. Gure sagarraz gain, inguru honetan etxerako sagardoa egiteko sagarra dutenek soberan dutena ere erabili dugu. Gainerakoa Gipuzkoatik eta Asturiastik ekarri dugun», dio Garciak. Nafarroan, Elizetxe eta Gariarekin batera, beste lau sagardogile daude: Aldazko Martintxonea sagardotegiko Inaxio Begiristain, Berueteko Txetxene Bordako Angel Alvarez, Lekunberriko Juan Arbizu eta Alaiandoko Isaak Etxeberria eta Aitor Irazustabarrena. Garciak dioenez, guztion artean 120.000 litro baino gehiago egiten dituzte eta urteik urtera gora doa produkzioa. Begiristain eta Alvarezek ere badituzte sagastiak, baina oraindik gazteegiak dira sagarra ematen hasteko. Hori dela eta, Garciak egin bezala, Gipuzkoan erosi dute gehiena, eta gainerakoa Asturiasean eta Galizian.

Uzta ez omen da oso ona izan, baina sagardoa, gradu gutxiagorekin bada ere, ona atera dela diote sagardogileek. Bakolitzak bere nahasketak egiten dituen arren, herrialdeko produktoreek sagar mota ugari erabili dute sagardoa egiteko. Elizetxek azaldu duenez, berrogei aldaera inguru hartu dituzte aurrerantzean hainbatetan edan den edaria egiteko. «Errezila, txori-sagarra, udare-sagarra, baztan-sagarra, ezti-sagarra edota anise-sagarra erabili ditugu sagardoa egiteko. Berrogei bat mota nahasi ditugu. Sagarrak, gehienbat, gazi-gaza behar du (%70) eta gainontzekoa gazia, sagardo-ari bizitasuna emateko». Askok uste badute ere



Lekarozko Larraldea sagardotegiko tolaera. Sagarra jo eta gero zukuza egiteko erabilia. ● LUIS AZANZA

**N**AFARROA ARDO LURRA DA. BERE magaletan ondutako mahastiek hainbat salda goxo ematen dute. Ardoaren lurra izanik ere, sagardotegiak, ondoak udazkeneko euri jasen eraginez mendian bezala, ugaltzen ari dira herrialdean. Badira, gainera, sagardoa hemen egiten dutenak, bertako nahiz kanpoko sagastien uztarekin.

Sagardotegietako sasoi berez urtarilaren 19an hasten bada ere (San Sebastian bezpera), Nafarroan sagardotegiek asteburu honetara aurreratu dute txotxa, eta askok gaur bertan zabalduko dituzte sagardotegiak, eta bidenabar, nola ez, kupelak.

Gaur edo asteburuan sagardotegira hurbiltzen dena txotxarekin edo zipotzarekin kupelan zulatu eta gero ateratzen den sagardo txorota edan eta edan ariko bada ere, sagardogilearen lana idazkenarekin batera hasi zen.

Urriaren hasieran sagarra bildu zuen. Garbitu eta jo ondoren dolareko lana egin du. Jolako sagarrak dolarean sartu eta gero, sagarraren zukuza atera zuen. Behin muztioa lorturik, barriketan sartu eta hartzitzen utzi du. Udazkena joan da eta negua etorria da; bi-hiru hilabete egon da sagardoa kupelan, eta orain probatzeko garaia iritsi da.

Bihar zabalduko dituzten sagardotegien artean dago Lekarozko Larraldea baserrikoa. Sagardotegia Jesus Angel Garcia eta Gregorio Elizetxeren artean daramate. Lehena Agoitzkoa da eta bigarrena Lekarozkoa, eta badira bost urte sagardotegia zabaldu zutela. Sagardoa egiteko ohitura Gipuzkuan ez ezik Baztango etxean ere izan dela egi bihurtuz Nafarroan sagardoaren eta sagarraren



Gregorio Elizetxe lekaroztarra berak egindako sagardoa probatzen.

● LUIS AZANZA

## Nafarroa Beherea: lakoia sustatu nahian

Sagardoa edaten den arren, sagardotegietako ohitura ez dago zabaldua Iparraldean. Nafarroa Beherean ere ez, beraz. Sagardotegi bakarra dago, Lasan, eta Bretainiatik ekarritako sagarrek in egin du sagardoa. Sagardotegi faltan, baxenafarretrek bertako sagarrondoekin egindako sagardoa egiteari ekin diote. Ekimena Donibane-Garaziko Sagartzea elkartarena da. Sagartzea 1989an sortu zen, eta 1991n bertako sagarrek in egindako proiektua abiatu zuen. 15.000 sagarrondo

landatu zituzten fruituak heldu den larrazoko dituzte. Pantxika Maitia Elkarteko partaideak dioen hamar laborariren alde da. Interesanta. Kasuak ziren sagarrondoak hartatu ondoren atera da Tokiko sagarrek in tokiko egitea da gure helburua», Bretainiatik eta Normandiatik sagarrek in egin dute sagardi estutu gabe bada ere, geroien sagarrek in egardoa

ekoizten hasiko dira. Aurtengoa 18.000 pinta egin dituzte (10.000 litro, hor nonbait). Nolanahi ere, 2000. urterako 500.000 botilako proiektua gauzatu nahi dute. Egiten ari bada ere, oraindik ez dakite nolako harrera izanen duen sagardo berriak, Iparraldean merkaturatzen dena gozoa baita Hegoaldekoaren aldean. «Hemengo jendea ez da Hegoaldeko idorriari usatua. Bretainiatik eta Normandiatik ekarritako sagardo goxoa du malte eta beharko da itxaron jendea ohitzeko», adierazi du Maitia.

denboraldirako egindako sagardo gehiena txotxean hartzen dela, %8 besterik ez da kontsumitzen sagardotegietan. Gainontzekoa botiletan sartuko da. Horretan ere, Nafarroan aitzindari izan dira Garcia eta Elizetxe. Joan den urtean 32.000 litro botilaratu zituzten eta aurtengoa eskatu ahal hasiko dira berriro. Beste sagardogileek aurtengoa hasteko asmoa dute.

### Elkartearen beharra

Nafarroan gero eta sagardotegi gehiago bada ere, produktuzera ausartu direnak gutxi batzuk dira. Ardogileen lurrean sagardoari aterabideak aurkitzea zailagoa dela aintzat hartuz, sagardogileek elkarte bat eratzeko pentsatu dute askotan.

Jadanik martxan da Nafarroako Sagar Egileen Elkartea. Duela urte batzuk sortu zen eta hogei

**N**a  
**sag**  
**æk**  
**1200**  
**bain**  
**go**  
**ekoiz**  
**te**  
**au**  
**Proden**  
**%8**  
**eda**  
**tx**

bat lagun biltzen ditu. Elkarrekin mahairako eta sagardoa egiteko sagarra erotu eta sustatu nahi du Nafarroan. Sagar Egileen Elkartea abiapuntutzat harturik, sagardogileen elkarte bat sortzekotan dabilza herrialdean sagardoa egitea ausartu direnak. Berueteko sagardotegiko jabe Angel Alvarezek dioenez, elkarrekin elkarlana eta bertako sagar produktioa bultzatzeko balio behar luke. «Orain bertako sagarrek in egiten dugun lau produktore gaude, eta bostekin egin daiteke elkarte. Sagardotegiak asko dira, baina gure asmoekin gu bakarrik. Leihakortasuna gero eta handiago den esparruan gero eta produktua hobe lortzeko indarrak batzea egokia da». Sagardogileon asmoa, lehenik eta behin, lehengai gero eta gehiago kontrolatzea litzateke. Horretarako, sagar ona ez ezik, sagardogileari interesatzen zaiona sartu behar de-

la diote. «Sagardotarako sagarra zabaldu behar da inguruan, guri interesatzen zaiguna, bederen», dio Alvarezek. Gainera, mendialdeko ekonomia hobetzeko beste modu bat bezala ulertu dute sagardotegia. «Hemen beti ganaduzaleak izan gara, eta oso osagarri polita da sagardotegia. Askotan hutsik gelditzen ari diren baserriek beste irtenbide bat ematea litzateke». Produktuoz gain, merkaturatze prozesua ere beren gain hartu nahi dute. Horretarako txotxean hartzen ez dena barriketan sartu eta saldu nahi lukete. «Hasi berriak gara. Lau urte bakarrik daramagu lanean baina buru-belarri gabil-tza. Sagardotegiaz gain, aurreko produktio prozesu guztia kontrolatu dugu. Izan ere, gure asmoa sagardoa botiletan sartu eta merkaturatzea ere bada. Hori, orain arte, Lekarozko sagardotegikoek bakarrik egin dute, baina gu ere hastekotan gabil-tza». Jakin badakite litro kopuru handiak merkaturatzen dituzten sagardotegi-jatetxeekin ezin direla lehiatu, baina jarraituko dute lanean. «Finen, gure helburua horiek aurre egitea baino gehiago artisaun erara eta modu naturalean egindako produktu ona eskaintzea baita», gaineratu du Jesus Angel Garcia.

### Ardoaren lurrean ezarri nahirik

Inaxio Begiristain, Juan Alvarez, Jesus Arbizu eta Jesus Angel Garcia eta Gregorio Elizetxek osatutako bikoteaz gain, bada berriki Nafarroan sagardoa egitera ausartu denik. Isaak Etxeberria goizuetarrak eta Aitor Irazustabarrena alegiarrak, Nafarroako erdialdea eta Erribera ardo lurra dela jakinda ere, sagardotegia irekitzea erabaki dute. Lizarrako eta Lodosako ikastolatan irakasle aritu eta gero, duela bi urte Lizarrako merindadean



Isaak Etxeberria, Murugarrenen sagardotegia zabaldu duen goizuetarra.

● LUIS AZANZA

dagoen Murugarren herrikan sagardotegia egitea otu zitzaion. «Sagardotegien kultura erakustea egokia iruditu zitzaigun. Inguruan ardogle eta bodega ugari daude. Ardoaren lurra da. Kultura lehengusiak direlakoan, pentsatu genuen posible zela, eta aurrera eramatea erabaki genuen», dio goizuetarrak. Aletegi bat erosi zuten baratze kozkor batekin, eta, eraikina zaharberritu ondoren, bihar irekiera festa eginen dute.

Bi ameslariok pozik daude lortutakoarekin. Tamaina hartu ahal herrialdeko beste sagardogileekin elkartzeko asmoa dute. «Aurtengoa ez dugu hor sartzeko asmorik, baina heldu den urtean partaide egiteko gogoia dugu. Hurrengo urteari begira sartuko gara, lanak arintzeko eta koordinazioa hobe izateko».

Era berean, sagarrondoak jartzeko aukera ere ez dute baztertzeko. «Ureztapena prestatu eta sagar landareak sartzeko intentzioa badugu. Hala ere, oraindik asmoa besterik ez da. Hau ardo lurra da eta ez dakigu nola aterako den. Dena den, arriskutako gara».

→ Irene Arrizurieta

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### XVIII. mendeko erret oroitegi


Ezagun da Isla josulagun irripartsu eta euskaltzaleak Fernando VI.aren koroatzea zela eta enkarguz tajutu *Día grande de Navarra* 1746.eko idazki satirikoa



G utxiri atzendu izan zaio Nafar agintariek ospakizun ekitaldi ofizialetan erabili ohi izan duten hantuskeri hutsala, oraindik orain erakutsitakoa, eta damuz, geroantzean ere jasaneraziko diguna. Halaxe izan zen XVIII. mendean ere bai, eta orain bezala, gehiegikeri erzoa zeritzonik ere bazegoen egon. Ezagun da Isla josulagun irripartsu eta euskaltzaleak Fernando VI.aren koroatzea zela eta enkarguz tajutu *Día grande de Navarra* 1746.eko idazki satirikoa, bai eta haren ondotik ateratako ihardespén zakar eta minberatuak, esate baterako, Valencian karrikaratu *Colirio para los cortos de vista*, eta abar. Alabaina, Isla aitaren ikuspegi kritikoa ez zegokeen guzieren eskura, eta hagitzez arruntagoak izan ziren adiurre korapilotsuetan kiribilkaturiko lan handi-nahiak. Bihoaz hemen baten batzuk.

Felipe V.aren premia jalo zenean, Tuteran izan ziren festen deskribapen zehatza Agustín Itsaso Ximenezek ekarri zigun, *Diario de las grandes fiestas con que la ciudad de Tudela ha celebrado el feliz nacimiento del serenísimo Príncipe de las Asturias*, Logroñon, Diego Revillarenean, 1707. ean. Ez zioteten on gehigerik ekarriko Luis giza-gaixoari, erregetza laburraren laburra joan baitzitzaion.

Urte batzuk beranduxeago, Martín Salgado agustindarrak izenburu maltzurra daraman honakoa atera zuen: *Congratulación festiva y expresión amante con que hizo visible el alma el noble fiel político cuerpo de la grande augusta ciudad de Tudela en la alta casualidad de ilustrar su suelo la perla de Alemania que con el engaste español brilló en la mano del gran monarca Carlos II, a quien el polvo le sea leve, la gran reina nuestra señora dña. María Ana de Neoburg*, Logroñon ere, Mathías San Martín baitan, 1739. urtean.



Idazkia Karlos II.aren alargunak Tuterako Santa Anako kaperara eginiko bisitaldiaren berri emateko du, eta honetan, hizkuntza ezberdinez osaturiko hamarrek bitxia irakur dezakegu, euskara tartean naski: «lat. Quorsum tendis sine me / basc. Andrea nere vizia? / ytal. Hal Chi è questo, dove và? / españ. Lo que mi alegría fue / francés. Voyant cela, sont fache, / arabig. Amará arrajeliá / gallego. En chorar à xenteda / portugues. Naon à vendo no seu pazo / griego. Hé basilisa (stonaxo) / xerga. Los chisos no endirga ya»

Tuteratik atera gabe, eta Fernando VI.aren koroatzea zela eta, Mazedako kontessari eskeinutako honakoa argitara eman zen egile izenik gabe: *Demonstración de la lealtad de la fidelísima ciudad de Tudela a la proclamación y levantamiento de pendones por la majestad de el rey NS Fernando II de Navarra y VI de Castilla y descripción de los regocijos públicos con que se celebró este acto el 29 y 30 de noviembre y el 1 y 2 de diciembre de 1746*, Zaragozako Joseph Forten etxean, 1747. ean.


Bizente Rodríguez-Arellano del Arco Kadreitakoa bide genuen. Aita, berriz, Bizente Rodríguez-Arellano de los Ríos abokatua, Uxuekoa zen, garai

horretan, oraino herri euskalduna zena. Aita izenkideak Gaztelako erret kontseilueta-ko abokatu ziharduen, 1769. ean Nafarroako aldundiaren sindiko izendatu zuten arte bederen. Orduán, nafar agintariek berek erregeari eskatu zioten bete gabe zirauten erresumaren gorteko legegizon karguetakoren bat berari emateko, aisa erdietsi zuena, eta orduz geroz, Iruñean izan zuen bere bulegoa. Horregatik agian, Bizente semeak nafar hiri-buruko josulagundiaren ikastetxean ikasi zuen.

Latina zein giza ikasketak bukatu ostean, Huescako unibertsitatara joan zen zuzenbide titulua hartzematera, eta aitaren bulegoan hiru urte eman ostean, 1782. ean Madrileria abiatu zen, behingoz eta betikoz, antzerkigile eta arte ederren munduan murgiltzera, bere laketgarrirako seguru, aitarenerako ez horrenbeste. Madrilen, asko izan ziren izkiriatu zituen lanak, 60tik gorako antzertilan ehundu zituen esaterako, baita elaberri, olerki-lan, itzulpen eta frantsesetiko egokitzapen ugari ere. Gaztelan zegoela, ez zuen Nafarroarekin zezakeen harremana erabat etendu, eta Karlos IV. a errege egin zutenean, *Navarra festiva en la aclamación de su católico monarca el señor Carlos IV* izenburukoa argitara eman zuen Iruñean, Gaztelu plazako Benito Cosculluela baitan, 1789. urtean. Hauxe silba egiturazko olerki luzea du, 31 orrialdetan, Gaztelako Carlos IV eta Nafarroako VII errege berriaren koroatzea zela eta Iruñean egin ziren festeen harian. Ez da deskribapen zehatz mehatza, eta estiloa nahikoa kulteranista du, nahiz Arellanok tajutu bestelako lanetan, ilustrazioaren hatza nabarmena izan. Ziur-errenik ere, estiloarena gaiak berak markatuko lioke, eta bilbe horretako lanetan usatua zenera lerratuko zen besterik gabe.

etorri ahalean

Patziku Perurena



### Gure hendoreak

G AUR ILUNTZEAN, R. MARIA Azkueren *Euskalerriaren Yakintza* leitzen ari nintzela, esatera honekin egin dut topo, aurreneko liburukiaren 399 orrialdean: «Euskalki guzietako itza da 'alkate', arabiarren 'alqadi'. Nonbait, Baiona aldean beintzat, 'hauzapez' darabilte 'alkate' itzaren orde. Noizbait 'endore' edo 'hendore' ere erabili zuten gure aurretikoak. Bizkaiko libururik zarrenean esakune auxe dakusku: Ez egik ezer, hendorea, entzun arte bestea».

Zoragarria benetan, gure hitz zahararren fonologia gozoa: 'hendore', 'engañadore', 'traidore' edo beste antzekoren batekin uzartu nahi izanda ere. Bizkaiko esakera zahar horren zentzu gaurkotua: «Ez egin deusik alkate, besteren esana aditu arte» edo gisako zerbait genuke. Arrunt ahazturik daukate esalege zahar hau, gure alkate euskaldunek. Aproposa esaldia, letra beltz haunditan gure auzapez guzietan paparretik zintzilik paratzeko. Damaso Intzakoak berriz honako esanera hauxe jaso zuen Ultzaman: «Alkatea besteekin da alkate. Bera bakarrik deus ez».

Dena dela, historian zehar hagitx alkate on guti izandu da, eta gaur sekular baino gutiago, ezin bestean. Alkateak herriko buru inozentea izan behar du, ez honen edo haren eskumakil politikoa. Eskuina edo ezkerria den, haundia edo tipia, polita edo itsusia, ez dio batere axola. Alkate batek lau gauza behar ditu on izateko: inozentzia, gizatasauna, buru argia eta begia erne. Izan ere, gure *hendore* zaharra *behedor* delakotik baitator.

Leitzako alkate batek aitortu zidan behin oharkabean edo: egun ez dela *alkatetzta*, finezi apurrik duen jendearentzako egina. Eta arrazoiz zuela uste dut. Begira bestela zer zen alkatea orain gutxi arte Erriberan: «Porquerizo que cuida de los cerdos de un pueblo». Mendetan ze-

har halaxe izandu da, interes zikin batzuen alde garbi jantzi-tako jendajerik ijitoena.

Halaxe da, egungo alkatearen funtzio ofizialera iritsi arte, *alkate* hitzak semantika zabala izandu du gizaldietan barrena. Oroit gaitezen ertaroan gure zoko hauetako gotorleku, gaztelu edo dorreen buru izaten ziren *alkalde* haletaz. Inon ziren bandolerorik, traidorerik eta gaizkilerik lotsagabeenaz eta ausartenaz inguratuak bizi ziren haiek, bazterretan nahi zizuten txikizuloak eta belzkeriak eginez.

Oraingo alkateen zerbitzupeko okerrago. Haiek zaldiz, trabukoz eta labanaz aurrez aurre oker egiten zutena, oraingo funtzionariook diplomazi zuriz eta paperez sailheska egiten baitituzte beren azio kobardeak, inori kararik emateko ere kapaz ez direla kasik.

Hala ere, alkate asko, orain gutxi arte, sekretarioaren bastoi inozentea izan ohi zen; egungo prentsa eta protagonismo xitalik gabe, jendaje xalo edo xital, baina izoxente batzuek inguratua: herri guziak adarra jotzen zion aguazil gixatxarra, eta beste antzeko hirulau alper tripazai edo erdimoxkor grazioso. Orain ordea, dena perfektua da, dena bere lekuan. Herriko Etxeek ordenadore hotz dirudite, eta herritarrek arima programatu.

Nazioak edo Aberriak baino gehiago kezkatu izandu nau beti herriak; hango edo hemengo herri tipi xarmagarriak; gizonaren bihotzak errorik inoxentee-nak botzen ditueneko herri hark. Han, zinezko baino bihotzkeoago den herri hartan, eman baigenion tankera gure guztizko lur arimadunari, han erein gure gogoaren hazi inozentea. Horregatik, herriska xoragarriok turismo komertzial hutsez erabat ergeltzera doazenean, gure gogoari eta bihotzari bizirik eutsiko dioten hendoreen eta herritarren hutsa sumatzen dut ariman.

Ziria

• Motxorrosolo •


### Matxurak

P LAZER HANDIZ ARI GARENEAN MURPHYREN BELDUR IZATEN OHI GARA. Pantailak keinu arraroa egin berri du. Etsi egin behar. Gaurkoa inoiz baino laburragoa duzue. Zorionez, matxura ez da larria izan. Birusaren jatorria kezka iturria. *Mintzoa* bera izan baita matxuraren eragilea. Argitalpena diruz lagundua denez zaurian ez du pikurik egiten. Ele gustagarriak disko gogorrean ezin grabatuz gabiltza. Gaixo gu.

Jose Miguel Lana  historialaria

# «Lurra lortzeko etsai ideologikoa suntsitzea oso nabarmena izan zen Erriberan»

Jose Miguel Lanak *Nekazal aldaketak eta jabetza harremanak Nafarroako hegoaldean: 1800-1936* tesia irakurri berri du Zaragozako Unibertsitatean. Lanak Erriberan nekazal gizartetik nekazaritza oinarri duen kapitalista batera gertatzen den jauzia aztertu du. Ikertzailearen arabera, aldaketak borroka gogorrek ekarri zituen lurra lortzeko lehian.



• LUIS AZANZA

**G**RIPEAREN ERAGINEZ EDO, BURUA pisu zuen egunean tokatu zitzaion hitz egitea. Hala ere, kafe baten arrimuan, luze mintzatu zen Jose Miguel, ikerketa zabal bat eginga izateak ematen duen konfiantzarekin.

■ **Nekazal aldaketak eta jabetza harremanak Nafarroako hegoaldean: 1800-1936 izeneko tesia irakurri duzu berriki Zaragozako Unibertsitatean. Zer ekarpen egiten ditu lanak?**

Ikuspuntu sozial batetik begiratuta, 1800-1936 artean gertatutako nekazal ekonomiaren garapena aztertu dut ikerlanean. Gizarte horretan zeuden harreman sozialak eta gertatutako aldaketak.

■ **Zein ondorio atera dituzu?**

Oro har esanda, hiru ziklo historiko aztertu ditut. 1790 eta 1936 bitartean nekazal ekonomian izandako garapen soziala, hain zuzen ere. Lehena 1790 eta 1840 artekoa litzateke. Gizarte sistema bat bertan behera geratu zen eta beste sistema bat ezartzen hasi. Merkatua da gizarteari behar dituen baliabideak ematen dizkiona, eta burgesia eta nobleziaren zati baten onurako izan da. Burgesia da gizarte sortuk berriaren protagonista. Bigarren etapa batean, burgesiak lurra pilatzen jarraituko du eta nekazarietatik errentak oso erraz lortuko ditu. Garai horretan nekazaritza Nafarroan oso negozio ona da. Hori XIX. mendearen bukaeran bukatu egiten da, lehiakortasuna handiagoa delako, eta berreraiki egin behar da. Hirugarren zikloan

horrek guztiak eragindako krisia jorratu dut. Batzuek gaintitu egin zuten krisia, baina Erriberako eta erdialdeko nekazari txiki eta jernalarientzako oso bortitza izan zen.

■ **Zergatik aukeratu zenuen Tuterako merindadea azterketarako?**

Zenbait faktorek eraman naute horretan oinarritzera. Batetik, lurrraren banaketan ezberdintasun handienak dauden Nafarroako eskualdea da, eta bestetik, 30eko hamarkadan gatazka sozial gehienak han gertatu ziren. Lurra lortzeko borrokan, etsai ideologikoaren suntsitzea oso nabarmena izan zen Erriberan. Bizi duen egoeraz kontziente den nekazaria, ondorioz horri aurre egiteko gai dena, suntsitzea. Nekazal oinarria zuen gizartearen kapitalismoak egin zuen aurrerapena eta horrek sortu zituen kontraesanak aztertu ahal izan ditut.

■ **Zein dira aurkitu dituzun kontraesan nabarmenenak?**

Kontraesanak denbora iragan ahala gertatzen dira. Garatzen doazen heinean agertzen dira eta estuasun une batzuetan bukatzen dira. Estuasun horien artean larriena XX. mendeko 30eko hamarkadan gertatu zen. XIX. mendean belarretarako ziren lurren prezioan erositako zelaietan landatu egin dezakete, eta oso lur emankorrak dira. Lurjabe handiak lurra kentzen ari dira, baina, ongarrak kimikoak eta aurrerakuntzak direla medio, errentagarritasuna gero eta handiagoa da.

Beraz, ezberdintasunak desagertu beharrean handitu egin dira. Aldiz, nekazaria askozaz ideologizatuagoa dago eta errealitateari aurre egiteko ideologia bat bereganatu du. Lurraren banaketak gatazka gordinak sortuko ditu.

■ **Lana egiteko zer-nolako informazioa aztertu duzu?**

Hainbat artxibategi erabili ditut baina, batez ere, partikularrak. Azkenok norbanakoen jokakerak aztertzeko baliagarriak izan zaizkit eta errenten, soldaten, prezioen eta abarren datu zehatzak lortzeko balio izan didate. Garrantzitsuena San Adriango markesarena da. Dokumentu ugari eta onak aurkitu ditut. San Adriango markesa, Egako Granadako Dukearekin batera, lurjabe handienetakoa zen.

■ **Zuk aztertu dituzun aldaketek oraindik ere badute islari herrialdeko nekazarietan?**

Nire ustez, XX. mendearen aurreneko laurdenean markatu ziren ildoak gero sakondu egin dira. Gainera, lurjabe handiak desagertzeak ekarri zuen nekazaritza erreformarik ez zen gertatu. Zentsura historikoa egon zen Guda Zibilean, gero gerraondoa dator, eta Fontellas eta Sartagudan nekazal kontrarreforma egiten du

## soslaia

Ustekabeak nahita edo, Jose Miguel Lana Zaragozan jaio zen duela 34 urte. Berez, Murieta herrikoa da, Lizarrako merindadekoa. Han iragan zituen unibertsitate Geografia eta Historia ikastera joan aurreko urteak.



Nafarroako Unibertsitate Publikoko Geografia eta Historia Departamentuko irakasle laguntzailea da egun, eta, Emilio Majuelo eta Juan Madariaga historialariek batera, historia soziala ikertzeko talde osatu berriko kidea da. Ideiak badituzten arren, asmoak zehaztu artean ez da deus aurreratzera aurratu.



Tesia egiteko hainbat artxibotan eta liburutan zoko-miran ibili ondoren, orain beta gehiago du beste gauza batzuk egiteko. Oraingo, euskara ikasten hasia da Iruñeko euskaltegi batean. Hitz egitea asko kostatzen bazaio ere, noizbait euskaraz irakasteko gai izanen dela uste du.

frankismoak. Fontellas eta Sartagudan, Diputazioak lur sail handiak erosi zituzten lurjabeek, eta aldeko zituen nekazarien artean banatu. Baina, kontraerreformatik kanpo, lur jabetza handiak lortu zituen nekazaria indartzen doa eta burgesia arrailatzen.

■ **Ikertzen jarraitzeko asmoa duzu?**

Eginak dauden lanei etekina atera behar zaiela uste dut. Egin dudana tesiaren ideia batzuk garatzeko asmoa dut. Beti gelditzen da

non sakondu. Lan egin behar dut San Adriango markesaren artxibategia ikasten. Jorratu dudana bakarrik izan dira haren kontuak eta kontu mugimenduak. Bere administratzaileekin eta beste batzuekin trukaturako gutunetan mami asko aurkitu daiteke. Nekazari merkatuen funtzionamenduan sakondu nahi nuke, eta benetan nola funtzionatzen zuten jakin.

→ Irene Arrizurieta

## BEKARIO!

ZALDI ERDA



## Nafar Kronika

Pello Argiñarena

### 98ko desastrea

**D**ENBORAREN MAKINAN SARTZERA ausartu naiz. Betaurreko birtualak ipinita, hauxe ikusi ahal izan dut hamabi hilabetez aurrera eginda. Telebista digitalak han-hemenka, Euskalerrira Irratia lizentziarik gabe, pakea Irlandatik gertuago, euskal presoak Euskal Herritik urrunago, etikak eta klonazioak elkarrekin topo egin, Oteiza munduarekin haserre, gripea, Urralburu eta Aragonen epaiketa, medikamentazioa indarrean, Ibarretxe seigarren urratseko lehendakaria, Montxok oskarra eskuratu, *España va mejor*, ETaren atentatuak eta bahiketa, atxiloketak nonnahi, Olano ez da Indurain, Konstituzionalak Itoitze ito, 2000 (-2), euroa badatorrela, Gora San Fermin, euskara kalean gora erakundeetan behera, Sozialistek Urralburutik Lizarbera aldaketa eskasa, Osasunak promozioa erdietsi, kutxazain automatikoa erreta, GAL auzia *El Mundo*-tik auzitegrira, Gonzalez Europara, Oporrak, Munduko Txapelketa Frantzia, Chiapasen sarraski gehiago, UEUren 26. edizioa, Hirugarren espazioa izenetik izanera, Nafarroa Oinez, Maha! Nazionalak urtebete espetxean, makroekonomia primeran, mikroekonomia segundana, Roch kafetegiak 100 urte, intsumisioaren urratsak kuarteletan, hauteskunde orokorrak, tratu txarren aurkako neurriak... Lastima! Denbora bukatu da eta makina gelditu egin da. Beste hainbat gertaera ezagutu gabe gelditu naiz. Duela mende bateko 98 hura *desastretzat* jo izan du historiak. batipat espainiarrentzat. Aurtengoan ez gara urruti ibiliko. Edo bai?

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Berriozar:** Pablo Sarasate Orkestrak haurrentzako entzunaldiak eskainiko ditu gaur, astelehenean eta arteartean. Taldeak bi lan eskainiko ditu: Saint Saisensen *El carnaval de los animales* eta Beethovenen *Lehenengo Sinfonia. Minuetto*. Entzunaldiek datorren astean jarraituko dute. Asteazkenean eta ostegunean, berriz, Rossiniaren eta Stravinskiren lanak entzuteko aukera izanen dute ikasleek.
- **Iruñea:** Oskorri taldeak bi kontzertu eskainiko ditu bihar, 12:00etan eta 17:30etan, Gaiarre Antzokian. Taldeak bere azken lana aurkeztuko du: *Marijane kanta zan*.

### ERASKUSKETAK

- **Lizarrak:** El paso erakusketa ikusteko aukera dago heldu den martxoaren 8ra arte, Gustavo de Maeztu museoan.
- **Barañain:** Gaztediaren Etxea eraikitzeke ideien lehiaketako lanak biltzen dituen erakusketa zabaldu da Kultur Etxean. Erakusketa ilbeltzaren 30a arte egonen da zabalik, asteartetik ostiralera, 19:00etatik 20:30etara.
- **Tafalla:** Kultur Patronatuan *Las mujeres mueven el mundo* argazki erakusketa dago ikusgai astelehena bitartean.
- **Iruñea:** Rufo Criadoren lanak ikusteko aukera dago Carlos III aretoan, hilaren bukaera bitartean.

### BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Nafarroako Esperanto Elkarteak esperantoa ikasteko ikastaroa antolatu du. Astelehenean hasiko da, Iturrumako San Juan Bosco kaleko 15ean, 19:00etan. Izena eman nahi izanez gero, elkartera hurbildu behar da.
- **Iruñea:** Luis Fernandezek eta

Josu Chuecak 'Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian' liburua aurkeztuko dute ostegunean, hilak 22, Catachu tabernan. Arratseko 19:00etan.

► **Barañain:** IKAKo Sahats euskaltegian 1997-98ko ikasturteko matrikula epea zabalik dago hilaren 30a arte. Urrats eta ordutegi guztiak eskaintzen dira. Informazio gehiago jaso nahi baduzu, dei ezazu 18-83-25 telefonora. Barañain ez ezik, Ermitagañan duen euskaltegian ere zabalik da matrikula epea. Informazio gehiago 989-92-88-92 telefonoan lor daiteke.

► **Tafalla:** Kultur Etxean Nafarroako sukaldaritzaren tradizioaz mintzatuko da gaur, 20:30etan, Ricardo Ciervide Martinena.

► **Zangoza:** Pintura eta zaharberritze ikastaroak egiteko aukera dago. Pintura ikastaroa

urtarrilaren 22an hasiko da, eta apirilaren 2ra arte iraunen du. Zaharberritze ikastaroa ilbeltzaren 27tik ekainaren 18ra arte izanen da.

► **Zubieta:** Nafarroako Kirol Elkarteak mendi zeharkaldia antolatu du hilaren 25erako, datorren igandean zortzi. Mendizaleek Zubieta-Ekaitza-Ar antza ibilbidea eginen dute. Informazioa eta izen ematea 22-43-24.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



*Hatsa izaki gure bizia...  
Carpe Diem, baby.*

